

ERRENTERRIAKO UDALAK HASSANNA AALIA-RI BERE BABESA ADIERAZTEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Errenterriako Udalak adierazi nahi du, Hassanna Aalia gazte sahararrari asilo politikoa ukatzearen (eta Espainiako Estatua 15 eguneko epean uzteko aginduaren) inguruan, bere babes osoa eskaintzen diola Hassannari.

Hassanna Aalia Aaiunen jaio zen (Mendebaldeko Sahara), 1988an. 2010ean Gdeim Izikeko kanpamentuko protesta baketsuan parte hartu zuen. Gertakari hori dela-eta, epaitu eta lau hilabeteko espetxe-zigorra ezarri zioten.

2011ko urrian, Bilbora joan zen ikasketa-beka batekin. Aaiunera itzultzeko bi hilabete falta zitzaizkionean, bere izena zerrenda batean agertu zen, Gdeim Izikeko gertakariengatik auzitegi militar batek epaituko zituen beste hainbaten artean; berak erabaki zuen Bilbon geratzea eta asilo politikoa eskatzea Espainiako gobernuari, bere herrialdera itzultzen bazen Marokoko agintariek espetxeratu egingo baitzuten.

2013ko otsailaren 17an, Rabateko Auzitegi Militarrak 25 zibil sahararren aurkako epaia eman zuen; Hassanna Aaliak biziarteko kartzela-zigorra jaso zuen (auzi-iheslaritzat jo zuten).

Ospe handiko nazioarteko hainbat legelarik epaiketa zuzenbide osoz deuseza dela diote: ez zegoen lekuko sinesgarririk edo probarik eta, ondorioz, ez zen nazioarteko zuzenbidea bete (Genevako Hitzarmena).

Zigorra ezarri ziotenetik, Espainiako estatuan barrena dabil, ezagutzera ematen giltzaperatuta dituen lagunak babesgabezia daukela eta Marokoren erregimenak sahararrak injustiziara bideratzen dituela.

2015eko urtarrilaren 19an, Hassannari jakinarazi zioten asilo-eskaera ezetsi ziotela eta 15 egun zituela Espainiako lurraldetik alde egiteko.

Hori guztia kontuan izanik, eta egoera oso larria denez, Errenterriako Udalak

ERABAKI DU

* Babesa eta elkartasuna adieraztea Hassanna Aaliari.

* Eskatzea agintari eskudunari eta Espainiako barne-ministroari gai honetan esku hartzeko eta berriz aztertzeko Hassanna Aaliaren asilo politikoko eskaera.

* Beste behin adieraztea arduratuta gaudela Marokoko gobernuak Mendebaldeko Saharan giza eskubideak urratzen dituelako. Eskatzen dugu errepresio-egoera honi amaiera emateko eta Saharako preso politiko guztiak aske uzteko.

* Eskatzea Mendebaldeko Saharan autodeterminaziorako erreferendum bat egitea, NBERekin adostuta, hori baita gatazka luze honi konponbide iraunkor, baketsu eta egonkorra emateko modu bakarra.

* Erabaki honen berri ematea hauei:

1. ESPAINIAKO ERREGE-ETXEA.

Palacio de la Zarzuela. Carretera del Pardo s/n. 28071 Madrid

2. ESPAINIAKO GOBERNUAREN PRESIDENTZIA.

La Moncloa. Avda. Puerta de Hierro, s/n. 28071 Madrid

3. KANPO-ARAZOETAKO ESPAINIAKO MINISTERIOA.

Plaza de la Provincia, 1. 28012 Madrid

4. ESPAINIAKO BARNE-MINISTERIOA

Paseo de la Castellana, 5. 28046 – Madrid

5. ESPAINIAREN NAZIO BATUETAKO MISIO IRAUNKORRA

245 East 47th Street, 36th Floor. New York, NY 10017

6. ACNUR-EN ESPAINIAKO ORDEZKARITZA:

Avda. General Perón 32-2º izda. 28020 Madrid

7. EUROPAKO PARLAMENTUAREN PRESIDENTZIA.

Martin Schulz. Rue Wiertz 60. B-1047 Bruselas

8. KONTSEILU EUROPARRAREN PRESIDENTEA:

Donald Tusk. Rue de la Loi 175. B-1048 Bruselas

9. MAROKOREN ESPAINIAKO ENBAXADA.

c/ Serrano, 179. 28002 Madrid.